

---

## BABESETXEAREN BARNE ARAUBIDEAREN ARAUDIA

Udalbatzarrak onartua 1999.03.29an

---

Arrasateko Udalak jakin daki pertsona batzuk babes barik daudela, kausa jakin batzuen ondorioz ohiko helbidea edo etxea bertan bera uzteko beharturik daudenean, eta horregatik, babesetxea zerbitzua jarri zuen abian. Horretarako, Udalbatzarrak, 1994ko ekainaren 17an egindako bilkuran, etxebizitza horren barne araudia onartu zuen behin betiko; horren testua oso-osorik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dago argitaraturik, 1994ko uztailaren 6an, 127. zk.

Azken hiru urteetan zerbitzua gehiagotan eskatu dute eta zerbitzua arautzeko Erregelamendua zati batean aldatzeko beharra ikusi du Udalak. Aipatu behar da indarrean dagoen erregelamenduan ezarritako baldintzetako bat ez dutela betetzen eskatzaile gehienek, hain zuzen ere, Arrasateko biztanleen udal erroldan izena emanda egotearena. Gainera, udal zerbitzu hau zati batean GIZARTEKINTZA-Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak subentzionatzen du, eta horrek behartu egiten gaitu Gipuzkoako udalerrietako biztanle guztiei zerbitzua ematea handitzera.

Bestalde, babesetxearen erabiltzaileak onartzeko ezarritako prozedura ez da izan oso operatiboa, eta pentsatzen du Udalak beharrezkoa dela samurtzea, aurkezten diren erabiltzeko eskariei agudo eta ondo erantzuteko.

Adierazitako guztiagatik, beharrezkotzat jotzen diren aldaketek indarrean dagoen araudia aldatzen ez badute ere neurri handian, babesetxearen barne araudi berria egitea pentsatu du Udalak, eta indarrean dagoenaren ordez, testu hau izango dugu:

### SARTZEKO BALDINTZAK

#### 1. Artikulua

Babesetxeak, udal titularitatekoa, hainbat kausarengatik, babes barik geratu eta berehala laguntza behar duten pertsonen babesa ematea du helburu.

#### 2. Artikulua

Zerbitzu hau erabiltzeko, Gipuzkoako udalerriren bateko biztanleen erroldan izena emanda egon behar da. Eremu hori handituz gero, Gobernu Batzordeak onartu beharko du.

#### 3. Artikulua

Hemen aipatzen diren pertsonak sartu ahal izango dira babesetxean, azaltzen diren kausengatik:

- Familia eta ohiko ingurunetik irtetea beharrezko duten emakumeak. Beharrezkotzat jotzen da emakumeak tratu txarrak edo irainak jasan dituztenean, edo jasateko arriskua dutenean.
- Familia elkarbizitza haustearen egoerak sortuta, bizi irauteko baliabiderik ez duten emakumeak.
- Ezbehar baten ondorioz (sutea, uholdea, e.a.) etxebizitza barik geratu diren familiak.
- Sartzeko Batzordeak baloratutako beste kasu berezi batzuk, Gobernu Batzordeak berretsi eta gero.

### SARTZEKO ESKARI AK

#### **4. Artikulua**

Babesetxean sartzeko eskabideak udaletxean bertan aurkeztuko dira, erregelamendu honen eranskin moduan agertzen den deklarazio-ereduaren arabera, eta ezinbestekoa da pertsona edo pertsonak egotea 2. artikuluan adierazitako gorabeheretako batean.

Sartzeko eskaria jaso eta gero, zerbitzuaren gizarte laguntzaile arduradunak txostena egingo du, eta eskatzailearen egoera pertsonala baloratuko du.

### **SARTZEKO BATZORDEA**

#### **5. Artikulua**

Sartzeko Batzordeak hautatu eta erabakiko ditu aurkezten diren eskabideak, zerbitzuaren gizarte laguntzaile arduradunak txostena egin eta gero.

#### **6. Artikulua**

Sartzeko eskabidea aurkeztu eta gero, ahalik eta agudoen egingo du bilera Sartzeko Batzordeak, gehienez ere 48 orduko epean eskabidea aurkezten denetik. Bilera egiteko deialdia Sartzeko batzordeburuak egingo du, egoki jotzen dituen bitartekoez.

Gizarte laguntzaileak aurkeztuko duen txostena azterturik, behin-behinekoz erabakiko du Sartzeko Batzordeak sartzeko eskabideari buruz, eta epe bat jarriko du erabiltzailearen egonaldia baimentzeko. Sartzeko Batzordeak Gobernu Batzordeari bidaliko dizkio, Gizarte Zerbitzuetako batzordearen bidez, batzordeak hartutako erabaki guztiak, berretsi ditzan.

Gobernu Batzordeak erabakiz gero Sartzeko Batzordeak emandako behin-behineko baimena ez berrestea, erabiltzaileak utzi egin beharko du etxebizitza 24 orduko epean, gizarte laguntzaileak adierazten dionetik.

Babesetxeko egonaldia ez da hiru hilekoa baino luzeagoa, eta handitu egin daiteke hori, premia egiaztatu eta gero, zerbitzuaren gizarte laguntzaile arduradunak aldeko txostena ematen badu eta organo aginpidedunek baimentzen badute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuetako departamentuak GIZARTEKINTZAK horren berri dakiela.

Sartzeko Batzordeak azkar, inpartzial eta zuhurtzia handiz jokatu behar du.

#### **Artículo 7.**

Babesetxean pertsona bat edo batzuk urgentziaz eta berehala sartzeko premia duten kasuetan, Sartzeko batzordeburuak edo Gizarte Zerbitzuetako saileko buruak baimena eman ahal izango diote/diete behin-behinekoz babesetxean sartzeko. Berehalaxe, 6. artikuluan ezarritako prozedurari ekingo zaio, behin betiko erabakitzeko.

#### **8. Artikulua**

Pertsona hauek osatuko dute Sartzeko Batzordea:

Batzordeburua:

- Gizarte Zerbitzu, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko batzordeburua.

Batzordekideak:

- Gizarte Zerbitzuetako saileko burua.
- Zerbitzuaren gizarte laguntzaile arduraduna.
- Emakume saileko teknikaria.
- Emakumeen taldeen ordezkari bat (berriztagarria)

## **9. Artikulua**

Egiteko hauek egokituko zaizkio Sartzeko Batzordeari:

- Bigarren artikuluan jasotzen diren gorabeheretako bat betetzen duen edozein pertsonari ematea onuradun izatea.
- Pertsona batek babesetxean zenbat denbora eman behar duen erabakitzea, kasuaren arabera.
- Zerbitzuaren pertsona onuradunak udal aurrekontuaren kontura mantenua behar duen edo beste edozein prestazio behar duen zehaztea, diruz edo laguntzaz.
- Kasu konkretu batean, babesetxea egoki erabiltzen ari den edo ez baloratzea.

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeari dagokio:

- Erregelamendu honekin edo babesetxearekin zerikusia duen edozein gairekin lotuta sor daitekeen edozein liskar edo zalantza interpretatu eta erabakitzea.

## **10. Artikulua**

Babesetxea mantentzeko diren fondoak Sartzeko Batzordeak administratuko ditu.

## **ONURADUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

### **11. Artikulua**

Babesetxea erabiltzeko, nahitaez onuradunak agiri bat sinatu behar du, eta konpromiso hauek hartuko ditu:

- Elkarbizitza arauak betetzea babesetxean dagoen bitartean.
- Erregelamendu honen arabera, ezartzen diren eginbeharrak betetzea.
- Dagozkion gestioak egitea, administratiboa eta/edo judizialak, kasuaren arabera, babesetxean egotea sortu duen arazo partikularra konpontzeko.

### **12. Artikulua**

Etxebizitza, altzariak eta gainerako gauzak, adibidez, eskailera eta atartea (gainerako auzokideek legez), babesetxean bizitzen dagoen edo dauden onuradunaren/en kontura joango dira.

Aparteko kasuetan izan ezik, Sartzeko Batzordeak baloratu eta gero, erabiltzaileak garbitzeko duen betebeharra betetzerik ez duelako egiaztatzen denean, udal garbiketako zerbitzuen bidez edota etxeko laguntzako zerbitzuen bidez egingo da garbiketa hori.

### **13. Artikulua**

Babesetxearen onuradunek behar bezala erabiliko dute etxea, eta eurena izango balitz bezala zainduko dute.

Etxebizitzan kalteak aurkituz gero, zerbitzuaren onuraduna behar ez bezala erabili duelako edo arduragabekeriagatik, beharturik egongo da onuraduna etxebizitza konpontzeko gastuak bere gain hartzera.

### **14. Artikulua**

Zerbitzuaren erabilera amaitutakoan, onuradunak babesetxea utzi beharko du sartu zenean zegoen egoera berean.

## **15. Artikulua**

Segurtasunagatik eta behar edo nahi duten bizilagunen anonimatoa gordetzeko, debekaturik dago bisitak izatea eta telefono zenbakiaren nahiz babesetxearen helbidearen berri ematea. Hor bizi direnen helbidea hauxe da: Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako saila.

## **16. Artikulua**

Babesetxean bizi diren pertsonak guztiz dute libre nahi dutenean etxetik irtetea.

Babesetxetik kanpora lo egin behar izanez gero, gizarte laguntzaile arduradunari adierazi behar diote aldez aurretik eta nahikoa denboraz. Baimen barik egun bi baino gehiago agertzen ez den pertsonari baja emango zaio.

## **17. Artikulua**

Babesetxean bizi diren pertsonak ezingo dutelortu ez eduki etxearen giltzarik, eta ezingo diete utzi giltza beste pertsona batzuei.

Babesetxeko egonaldia bukatutakoan, babesetxeko onuradunek giltzak entregatu beharko dizkiote gizarte laguntzaile arduradunari.

## **18. Artikulua**

Udala eta zerbitzuaren gizarte laguntzaile arduraduna kasu batean ere ez dira izango erantzule, babesetxean bizi diren pertsonak utzitako diruak edo balioko beste objektu batzuk galduz gero.

## **19. Artikulua**

Babesetxean ezin izango da obrarik egin, han bizi diren pertsonen ekimenez. Instalazioetan matxuraren bat izanez gero, berehala adieraziko diote gizarte laguntzaileari.

## **20. Artikulua**

Erregelamendu honetan xedatzen dena arau hautsiz gero, araua hausten duen bizilaguna kanporatuko da (eta haren familia, hala badagokio).

## **XEDAPEN DEROGATZAILEA**

Derogaturik geratu da Arrasateko babesetxearen barne araubidearen Erregelamendua, Udalbatzarrak behin betiko onartu zuena 1994ko ekainaren 17an egindako bilkuran; haren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten 1994ko uztailaren 6an, 127 zk.

## **BUKAERAKO XEDAPENA**

Erregelamendu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik sartuko da indarrean.